

PRODUKTUAREN AURKEZPEN LABURRA

Gure produktua, zakarrontzi adimenduna, zaborra automatikoki bereizten du, kutsadura murriztuz eta birziklapena errazten. Diseinu praktikoa du, 180 kg pisatzen dituen makina batek zabor kantitate handiak kudeatuz. Helburua planetaren garbitasuna eta zaborra behar bezala bereiztea da. Eskaerak udaletxe, estatuko erakunde eta enpresa pribatuek egin ditzakete.

Gure produktua birziklapena erraztu eta ingurumenaren jasangarritasuna hobetzeko diseinatuta dago, udaletxe eta enpresa pribatuei zuzenduta, zaborra modu eraginkorrean kudeatzeko eta klima aldaketaren aurka borrokatzeko. Proiektua hondakinen kudeaketa hobetzeko, kutsadura murrizteko eta ekonomia zirkularra sustatzeko bideratuta dago. Inbertsioak Espainiako gobernuak, birziklatze konpainiak eta ingurumen fundazioek egingo dituzte, hornitzaileek material eta garraiobideak eskainiko dituzte.

Gure produktuaren prezioa 850.000€-koa izango da, gizarteko arazoak konpontzen dituelako. Hasiera batean, 4 zakarrontzi jarriko ditugu Donostian, eta aurrerago gehiago jarriko dira. Prezio dinamikoa ezarriko da eskaera eta eskaintzaren arabera, eta ordainketa transferentzia bidez egingo da, aukera anitzekin. Diru-sarrerak handitzeko, zakarrontziak salduko ditugu eta publizitate espazioak eskainiko ditugu. Gobernuak diru laguntzak eskaini ditzake, eta inbertsioak enpresako akzioetan banatuko dira.

Gure produktua zabaltzeko, publizitate kanpaina bat egingo dugu sare sozialetan eta telebistan, eta aplikazio bat garatuko dugu funtzionamendua azaltzeko. Banaketa kamioi baten bidez egingo da, enpresa pribatu bat kontratatuz Donostian eta auzoetan banatzeko. Komunikazioa bileretan eta ordezkariekin egingo da, eta bezeroek zuzenean harremanetan jarraitzeko aukera izango dute. Salmenta aplikazioan egingo da, eta entrega enpresa pribatuek kudeatuko dute. Bezeroek arduratuko dira zaborra hustutzeaz, garbiketa eta publizitatea kentzeaz, guk funtzionamendua zainduz.

Bezeroekin harreman estua izatea funtsezkoa da gure enpresaren arrakastarako. Horretarako, autozerbitzua, zerbitzu automatizatuak eta komunitateak erabiliko ditugu esperientzia hobetzeko eta leialtasuna handitzeko. Publizitatea gune publikoetan, telebistan, irratsaioetan eta sare sozialetan egingo dugu, esperientziak partekatzeko. Webgune eta aplikazio bidez komunikazioa erraztuko dugu, eskaerak eta galderak modu eraginkorrean kudeatzeko, eta etengabeko gardentasunak bezeroen konfiantza eta interesa mantenduko ditu.

Proiektuaren funtzionamendurako lau baliabide garrantzitsuak dira: baliabide fisikoak (burnia, kableak, plastikoa, ordenagailuak eta kamera), baliabide intelektualak (ingeniariek eta programatzaileek sortutako softwareak), baliabide humanoak (giza gaitasuna zaborra ondo bereizteko) eta baliabide finantzarioak (250.000 euroko inbertsioa). Baliabide hauek elkarlanean, zaborrontzi adimenduna sortuko da.

Gure enpresak ekoizpenaren eta zerbitzu eskaintzaren jarduerak burutuko ditu: zakarrontzi adimendunak sortzea hornitzaileek emandako materialekin, eta horretarako adituak eta profesionalak kontratatzea. Zerbitzu eskaintzan, gobernuari zakarrontziak salduko zaizkio, eta erabiltzaileak herritarrak izango dira, adimendunen bidez zaborra bereizteko prozesua eragiten dutenak.